

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**119/2024 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa. "A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeako proiektua" egikaritzeko beharrezkoa den desjabetzea handitzea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presazko prozedura. Kreditu atxikipena**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 377/2023 Erabakiaren bidez, erantzun egin zitzairen "A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeako proiektua" ren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei, eta onespina eman zitzaion haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela adierazi zen, eta izapide hori premiazkoa zela deklaratu zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion proiektua gauzatzeko behar ziren azalera handitu eta/edo aldatzeko.

Erreferentziako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendaren desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

2024ko urtarrilaren 25ean, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak jakinarazi zuenez, A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeako proiekturako hasitako 2023/1 desjabetze espedienteari dagokionez, balio justurako deialdia egin eta gero aktak egin ondoren, jabe batzuek hainbat adierazpen eta alegazio egin dituzte, eta, horren ondorioz, berrikusi egin dira eraginpeko hainbat lurzatiren desjabetzeak.

Lege eta Administrazio Zerbitzuak adierazi duenez, adierazpen horietako batzuk desjabetu gabeko lurzati hondarrei buruzkoak dira; izan ere, jabeek haiek ustiatzea ez dela ekonomikoa adierazi ondoren, eskuratzeko eskatzen dute.

Gaia aztertu ondoren, hondar horietako batzuk errepiderako interesgarriak direla ikusi da, ingurumena lehengoratzeko neurri zuzentzaileak aplikatzeko balio baitezakete, bat etorritik proiektuan zehaztutakoarekin.

Hori dela eta, deskribatutako baldintzak betetzen dituzten hondar horiek behin betiko okupatzeko eta haiek bide jabari publikora afektatzeko eskatzen da, beste hondakin batzuk Arabako Foru Aldundiaren ondare ondasun gisa eskuratu badaitezke ere, Lege eta Administrazio Zerbitzua egokitzen jotzen badu.

Zehazki, eskuratu behar diren eta bide jabari publikoari afektatuta geratu behar diren hondarrak jarraian zehazten diren finkei dagozkie:

FINKA	LURZATIA	POLIGONOA	UDALERRIA	BEHIN BETIKO OKUPAZIO AZALERA (M <sup>2</sup> )
39/100	322	3	LEGUTIO	212,89
40/100	321	3	LEGUTIO	509,85
42/100	319	3	LEGUTIO	351,72
48/100	309	3	LEGUTIO	522,73
51/100	308	3	LEGUTIO	429,95
58/100	310	3	LEGUTIO	387,65
59/100	312	3	LEGUTIO	1.562,52
61/100	314	3	LEGUTIO	1.285,23

Gaineratu du ezen, bestalde, proiektatutako trazaduraren arabera, hainbat lurzati sarbiderik gabe geratzen direla, eta, beraz, aktetan jasotako adierazpenetako batzuek zerikusia dutela lurzati horiek sarbidez hornitzeko eskaerarekin.

Horixe da N-240 errepidearen ondoan dauden lurzati kasua, zeinek egun errepide horren ondoan dagoen pasabide batetik baitute sarbidea, 16+540 KParen parean, ezkerreko ertzean, goranzko noranzkoan. Sarbide hori, bide segurtasuneko arrazoiengatik, ezabatu egingo da, eta ezin izango da berritu egun dagoen antzera.

Egungo sarbidea kentzeak eragindako lurzati guztietarako ibilgailuentzako pasabideari eusteko, konponbide egokientzat jotzen da 4,00 m-ko zabalerako bide-zor iraunkor bat eraikitzea, 1 poligonoko 740 eta 738 lurzati ganean, N-240 errepideko 16+380 KPan dagoen bidetik abiatuta, ezkerreko ertzean. Irtenbide horrek, gainera, eraginpeko jabeen oniritzia du, haiekin duela gutxi foru bulegoetan egindako bilera batean agerian geratu den bezala.

Ondorioz, eraginpeko lurzati desjabetze handitze batzuk gertatu dira, jarraian erakusten den bezala:

FINKA	LURZATIA	POLIGONOA	UDALERRIA	ZORTASUN AZALERA (M <sup>2</sup> )
2/100	738	1	LEGUTIO	370
2/090	740	1	LEGUTIO	256

Ondorioztatzen du, era berean, proiektuak beste sarbide bat kentzea aurreikusten duela, A-623 errepideko 16+690 KPan, eskuineko ertzean, goranzko noranzkoan, eta ez dela aurreikusten berriro jartzea; beraz, 7/000, 8/000, 10/000 eta 11/000 finkei dagozkien eraginpeko lurzati-tarako sarbidea errazteko, 4.00 m-ko zabalerako bide-zorra eratzea proposatzen da Legutioko 2 poligonoko 283 lurzatiaren ganean, hala desjabetzea handituko delarik, jarraian adierazten den bezala:

FINKA	LURZATIA	POLIGONOA	UDALERRIA	ZORTASUN AZALERA (M <sup>2</sup> )
8/090	283	2	LEGUTIO	395

Horretarako, desjabetze espedienteko 39/100, 40/100, 42/100, 48/100, 51/100, 58/100, 59/100, 61/100, 2/100, 2/090 eta 8/090 finkek sortu behar dira, foru agindu honen eranskinean agertzen diren afektazioekin.

Handitze honen eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 22.771,86 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatu beharrezkotzat deklaratzeko gauzatu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta presazko prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Aztertu dira Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "A-2620 errepidean Legutioko saihe bidea eta A-623 errepidearekiko lotunea eraikitzeko proiektua" egikaritzeko beharrezkoa den desjabetzea handitzea, eranskinean zehazten denaren arabera.

Bigarrena. Adieraztea handitze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko eta bide-zorra ezartzeko.

Hirugarrena. Presazko prozeduraz izapidetzea eranskinean zerrendatutako finken desjabetzea.

Laugarrena. 22.771,86 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000505 "Desjabetzeak" aurrekontu aplikazioaren kontura, ondasunen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a

*Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua*  
**JON NOGALES PRIETO**

Mugikortasun Jasangarriaren eta  
Bide Azpiegituren Saila  
Departamento de Movilidad Sostenible  
e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO  
A-620 errepidean Legutoko sailhesbidea erakitzeko eta A-623 errepidearekin lotzeko proiektua  
Proyecto de construcción de la variante de Legutio en la carretera A-2620 y conexión con la carretera A-623

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		UDAL MUGARTEA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m²		
		POLIGONOA	LURSAILA				BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONO	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE
2-100	JAVIER ARZAC BERROSPE M. IZASKUN GARMENDIA BARERNA	1	738	LEGUTIO	TIERRA LABOR SECANO				Servidumbre de paso 4m 370
2-090	SUSANA UGARTE ORTIZ DE ZARATE M. ISABEL SAENZ DE VITERI UGARTE M. ASUNCION SAENZ DE VITERI UGARTE JIGNACIO SAENZ DE VITERI UGARTE	1	740	LEGUTIO	PRADERA / HUIERTA				Servidumbre de paso 4m 256
8-090	BLANCA ESTHER MARTINEZ DE SARRIA ORTIZ DE ZARATE EGOTIZ MARTINEZ DE SARRIA ANGULO GORKA MARTINEZ DE SARRIA ANGULO	2	283	LEGUTIO	TIERRA LABOR SECANO				Servidumbre de paso 4m. 395
39-100	M. LUISA VITERI INURRIGARRO INAKI VITERI INURRIGARRO	3	322	LEGUTIO	PRADERA		212,89		
40-100	OLGA VITERI ORUNA	3	321	LEGUTIO	PRADERA		509,85		
42-100	GENARO IBABE RUIZ DE ZARATE MARIA CONCEPCION GOMEZ LACALLE	3	319	LEGUTIO	FRUTAL		351,72		
48-100	J. IGNACIO SAENZ DE VITERI UGARTE M. ISABEL SAENZ DE VITERI UGARTE SUSANA UGARTE ORTIZ DE ZARATE	3	309	LEGUTIO	PRADERA		522,73		
51-100	FUNDACION JOSE MATIA CALVO	3	308	LEGUTIO	PRADERA		429,95		
58-100	M. TERESA SAENZ DE VITERI SUSO	3	310	LEGUTIO	PRADERA		387,65		
59-100	M. TERESA SAENZ DE VITERI SUSO	3	312	LEGUTIO	PRADERA / MONTE		1.562,52		
61-100	OLGA VITERI ORUNA	3	314	LEGUTIO	PRADERA		1.285,23		